

IES MINAS BHI - IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Minas BHI Ezkerraldean kokatuta dago, zehazki Barakaldon. Barakaldo Bizkaiko bigarren hiririk populatuena da eta bertan lau institutu publiko daude.

Minas Institutua 1967an sortu zen, baina Lanbide Heziketako ikastetxea zen. 1996-1997 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe bilakatu zen. 2021-2022 ikasturtetik aurrera Gela Egonkor bat ere badu, ikasle guztien beharretara egokitu ahal izateko.

Minas Institutua, batez ere, D eredu institutua da eta ikasleek euskaraz ikatea funtsezko eskubidetzat jotzen dugu, baina B eredu plaza batzuk ere baditu, eredu horretan ikasi nahi duten ikasleen eskarira erantzuteko. Gaur egun, 550 ikasle inguruk ikasten dute Minasen, eta 80 irakasle inguruk lan egiten du bertan.

Gure ikasleen familien maila sozioekonomikoa nahiko apala da, Barakaldo oro har maila erdi-baxuko biztanlez osatutako herria baita. Gainera, azken urteotan ugaritu egin dira jatorri etorkineko ikasleak eta herrialde askotatik etorritako familiak ditugu gure artean. Hori dela eta, kultura aniztasuna balioan jartzen dugu eta aniztasun hori ikusarazten saiatzen gara.

Baliabide teknologikoei dagokionez, aipatu behar da Minasen bi informatika gela ditugula eta, horretaz gain, ikasgela guztietan ordenagailua eta pantaila digitala daudela. Areto Nagusia oso ondo Hornituta dago ikus-entzunezkoei dagokionez, eta ordenagailuaz eta proiektoreaz gain, megafonia sistema ere badu.

Minas BHI institutuaren helburu nagusia gure ikasleen ongizate emozionala eta haien behar curricularrei erantzutea da. Horretarako, eta ikasleen erabateko aniztasunari erantzuteko, berrikuntza pedagogikoaren alde egiten dugu, irakasteko modu berritzaileak bultzatuz, norbanako tutoretzak eskainiz, ezberdintasunak balioan jarriz, baina aldi berean berdinen arteko ikasketak bultzatuz.

Ikastetxeak leku segurua eta atsegina izan behar du ikasle guztientzat eta ez da inolako bazterketarik onartzen, sexu, arraza, erlijio edota bestelako arrazoiengatik.

Azpiegiturak

Gure zentroak azpiegitura teknologiko ona du, bai konektibitateari dagokionez, bai gailu digitalei dagokienez.

Hezkuntza Saisetia ordenagailuz eta pantaila digitalez hornitu gaituzte.

Mintegi guztietan daude ordenagailu batzuk irakasleen eskura, eta irakasle gelan ere beste 4 ordenagailu daude.

Ikasleek Eusko Jaurlaritzatik hornitutako portatilak dituzte (windows sistema eragilearekin).

Une honetan arbel digitalak edo monitore interaktiboak ditugu ikastetxeko gela guztietan. Honetaz gain, bi informatika gela ditugu. Bat eraikin bakoitzeko.

Konektagarritasunari dagokionez, esan dezakegu normalean nahiko ondo iristen dela gela guztietara.

Proiektuaren justifikazioa

Gizartea etengabe aldatzen ari dela, eta digitalizazioak funtsezko zeregina duela kontuan hartuta, beharrezkoa da ikastetxeek, ahal den neurrian, planteatzen zaizkigun eskakizunei erantzutea. Gure ikasleak gizarte digitalizatu batean garatzeko prestatu behar ditugu.

Bestalde, irakasleek ere digitalki trebatuta egon behar dute, bai ikastetxearen antolaketa lana errazteko, bai curriculuma behar den eskakizun-mailarekin burutzeko.

Guztion artean lortu behar dugu hezkuntza-prozesuak hobetzea, gure ikasle guztiek ahalik eta gehien gara ditzaten ikaskuntza-prozesuko gaitasunak.

Plan honen bidez, eta digitalizazioari dagokionez gaur egun dagoen egoeraren azterketatik abiatuta, zentroa aldatzen joan nahi dugu, digitalki gai izan dadin. Gure helburuak bi arlotan oinarrituko dira:

- Hezkuntza-komunitateko kideen gaitasun digitala hobetzea, gero eta zorrotzagoa den gizarte baten eskaerei eta beharrei erantzuteko.
- Ezagutzak ikastetxearen antolamenduan bertan aplikatzea.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Institutuko proiektu digitala abian jartzeko ikasturte hasierako ebazpenean aipatzen zen irakas-ikas prozesuetan eragina duten alderdietan bildu behar genituela indarrak: pedagogiaz, metodologia berriaz, **digitalizazioaz**, zaintza emozionalaz, eta bereziki, curriculuma. Horri erantzuteko asmoz, Digitalizazio batzorde berria eratu dugu IPDaren egite prozesua dinamizatzeko, koordinatzeko, eta eguneratua mantentzeko. Horretarako, institutuak hainbat tresna eta laguntza izan ditu eskura: gida, mentorearen eta kanpoko enpresa baten aholkularitza.

Lan taldeko partaideak badira 4 BeAtarrak, Zuzendaritza Taldea eta IKT arduraduna.

Talde honek lehentasunak markatu ditu:

1.- Hezkuntza-erakundeetan teknologia digitalen integrazio eraginkorra eta erabilera optimoa ahalbidetzea.

Maila bakoitzean lortu behar den ikasleen gaitasun digitala eta hori lortzeko behar diren baliabideak eta eman behar diren pausuak zehaztuko ditugu: Aplikazioak, gailuak, ordutegiak, curriculumean txertatu programazioen bidez, eta edukiak eta denboralizazioa zehaztuz.

2.- Hezkuntza sailak 2022-2024 aldirako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planaren baitan proposatzen den ikastetxeetako ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitala sustatzea.

Horretarako hainbat ekintza bultzatuko dira honako arloetara bideratuta: material berriak sortzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak digitalki gaitzera, azpiegitura berriak garatzera eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika aurreratuak hartzera.

3.- Irakasleen Konpetentzia Digitalari dagokion marko berria lantzea:

Teknocurriculumari buruzko formazioa egingo da ikasturtean zehar eta, horri jarraiki, lanean diharduten irakasleen %80ak marko honekiko duen konpetentzia akreditatzea da helburua.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Ikastetxeko azken xedea bada ikasleek ikas dezaten, baloretan hezi daitezen eta treba daitezen gaur egungo gizarteko norbanako konpetente gisa. Beraz, Proiektu Digitala bat dator institutuko beste dokumentuekin (IHP, IUP) eta hein handi batean osagarriak dira.

Proiektu digital hau jaiotzen da institutuko balio orokorretan eragiteko, eta kultura aldaketa sakon bat bultzatzeko. Horretarako jarduera ausartak eta desafiatsuak proposatu nahi ditugu alor guztietan. Teknologia digitalen integrazio eraginkorra eta erabilera optimoa ahalbidetze aldera, proiektu digital honekin sustatuko da ikastetxeko ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitala: material berriak sortzea, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak digitalki gaitzea, azpiegitura berriak garatzea eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika berriak abian jartzea.

Proiektu digitala lerrokatuta dago hezkuntza proiektuarekin eta urteko planarekin, ikastetxearen errealitateara egokituta dagoena eta irakasleen formazioa bere baitan jasotzen duena.

Bide hau jorratzeko digitalizazio batzordeak hasunarketarako erabili duen iparrotza IUPeko puntu hauek izan dira:

- **Ikastetxeko plan digitala garatzea, ikastetxearen beharrei erreparatuta.**
- **Irakasleen gaitasun digitala akreditatzeko bidea irekitzea.**
- **Curriculum berria eta haren garapena eta digitalizazioa.**

Irakasle eta ikasleen gaitasun digitala areagotzea, baita irakaskuntza-, kudeaketa- eta komunikazio-prozesuetan baliabide digitalen erabileran SISTEMATIZAZIO maila ere.

Sailak emandako ordenagailuak ikasleei banatzeko, zaintzeko eta mantentzeko protokolo bat prestatzea.

Ikasturte horretako beste lehentasunetako bat da hezkuntza-komunitate osoak (irakasleek, ikasleek eta familiek) ikastetxean erabilitako baliabideak eta plataformak ezagutzen eta erabiltzen dituztela bermatzea, etorkizuneko edozein egoerari aurre egin ahal izateko. Prozesu hori duela urte batzuk hasi zuen ikastetxeak (Sare Hezkuntza Gelan). Gaur egun, zentroa berrikuntza metodologikoko prozesu batean murgilduta

dago, eta horren barruan sartzen da ikaskuntza kooperatiboa abiaraztea eta ikasgelan IKT tresnak maiz erabiltzea.

Prozesu horretan dinamizatzeko, laguntzeko eta laguntzeko helburuarekin, DIGITALIZAZIO batzorde bat sortu da. Batzorde horrek prestakuntza-plan bat ezarri du irakasleek IKT tresnak ikasgelan txerta ditzaten. Ikasturte honetan, gainera, barneko eta kanpoko komunikazioa modu erabakigarrian bultzatu da, hainbat tresna informatikoren bidez. Urrutiko hezkuntza eta ikaskuntza egiteko tresnei buruzko prestakuntza ere indartzen da.

Eraldaketarako natur prozesu honetan arretatsu jokatu behar dugu eta ezin izango dugu ahaztu gure ikasleen beste trebetasun eta abileziak aktibatzea, ikasleek daukaten teknologiarekiko ukitze maila gero eta handiago izanik kontutan hartuta. Hori dela-eta, ezinbestekoa da teknologiarene gehiegizko erabilerak eragin dezakeen balizko ondorioak aztertzea, eta hemendik sor litezkeen osasun arazoak aurreikustea.

Lehenago aipatutako guztiagatik, proiektu digitalaren ekarpena bada ikasleen zein irakasleen trebetasun digitaletan eragitea, mende honetako erronkei arrakastaz aurre egin diezaieten. Era berean, institutua aro digitalera egokitzea da proiektu digitalaren lehentasuna, eta honek dakarren erronka ez da pedagogian bakarrik gertatzen, baita lanaren antolaketan, azpiegituretan eta gidaritzan. Testuinguru horretan, esperimentazioak eta ingurune digitalen erabilerak bultzatuta egin behar da eraldaketa, praktika pedagogikoak hobetzeko.

2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

Ikastetxeak digitalizazioari dagokionez duen egoera aztertzeko, gure eskola-komunitateak egindako SELFIEaren emaitzetara joko dugu. Azterketa hau egiteko, kontuan hartuko dugu zein etapatan eta zein mailatan aritzen garen.

Parte-hartzearen ehunekoak handiak izan ziren:

- Zuzendaritza taldeko kideak: %75
- Irakasleak: %88
- Ikasleak: %77

Oro har, SELFIEaren atalak aztertuz gero, ez da alde handirik egon zuzendaritza-taldeak eta irakasleek emandako puntuazioaren artean. Hala ere, ia gai guztietan, zuzendaritza-taldeak puntuazio handiagoa eman du, alde handiena lidergoaren atalean izanik. Ikasleak eta irakasleak alderatuta, antzeko emaitzak egon dira ere.

Nabarmenezkoa da azpiegiturei eta ekipoei buruzko atalak lortu duela puntuaziorik handiena. Gure ikastetxea ondo hornituta dago, eta ikasle guztiek erabil ditzakete institutuko ekipoa. Talde ezberdinen erabilera kudeatzeko egutegi bat ezarri da. Gela guztietan irakaslearen ordenagailuak eta pantaila digitalak daude, hala behar duten jardueretan erabili ahal izateko. Horretaz gain, ikasle guztiak dituzte eskuragarri Eusko Jaurlaritzak maileguan eskainitako eramangarriak, eta klasean zein etxeko lanetarako erabiltzen dira.

Halaber, azpimarratu behar da puntuaziorik baxuena ebaluazio-praktiken atalean lortu dela. Batzbestekoan 3 puntu lortu diren arren, atal honetan 3tik beherako edo oso gertuko emaitzak egon dira, zehazki “Beste ikasle batzuei haien lanari buruzko ohar konstruktiboak”, eta “Nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa” galderetan.

Planteatutako galderek teknologia digitalen erabilerari egiten diote erreferentzia, hala nola, ikaskuntza birtualeko inguruneen, eztabaida-foroen eta abarren erabilerari. Tresna horiek guztiak gure etapetako ikasleen mailatik oso urrun geratzen dira. Tresna sinpleren bat erabiltzen saia gaitezke, esate baterako, formulario digitalak, norbere gaitasunak ebaluatzeko, eta haien ikaskuntzari buruz gogoeta egiteko. Erabilgarria izan daiteke ere beraien arteko ebaluazio tresna gisa. Dena den, ebaluazio-praktiken atala da gehien landu behar duguna hobetzeko.

Aipa dezakegu ere “Kolaborazioa eta sareak” ataleko galderen arteko emaitzen alde handia. Elkarlanari dagokionez 4,2 puntu atera badira, beste bi galderetan 3 puntu besterik ez dugu lortu, beraz, atal honetan hobetzeko aukera ikusten da.

Gainerako ataletan, puntuazioa 3,5etik 4,7ra bitartekoa izan da. Emaitza onak izan ditugula uste dugu, eta hori ikastetxean urteetan egindako lanaren isla da. Beti izan dugu kontuan teknologia digitalak erabiltzeak lagundu egiten duela ikaskuntza-prozesuan. Oso

tresna ahaltzuak dira ikastetxearen antolakuntzarako, irakaskuntza-jarduerak egiteko, informazioa lortzeko, eta komunikaziorako.

Gaur egun eskolako web orria dugu, <https://www.iesminas.net/> non interesatuek gure ikastetxearen ezaugarriak, proiektuak eta zerbitzuak ezagutu ditzaketen.

Halaber, sare sozialetan gaude, familiei ikasturtean zehar egiten ditugun jardueren berri berehala emateko:

- Instagram: @iesminasbhi
- Whatsapp: gurasoen hedapen taldeak gelaka antolatuta.

AMIA analisisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

- Estrategia digital orokorrik ez.
- Ez da teknologia ezartzen irakaskuntza-ikaskuntzan.
- Irakaskuntzaren garapen profesionala ez da nahikoa.
- Ez da gutxieneko ezagutzarik IKTetan ezarri.
- Ez da ikasteko ingurune birtualik zehaztu.
- IKTen ebaluazioa ez dago argi.
- Ez da koebaluaziorik egiten.
- Ikasleak ez dira seguruak IKTak erabiltzen.
- Ikasleak ez dute eduki digitalik sortzen.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

- Langileen % 50 berritzen da.
- Belaunaldi-eten digital handia.
- IKTen erabilera berria da eta ez dakite ebaluatzen.
- Ordezkaritzak hautatutakora mugatuta.
- Teknologia kontsumitzeko erabiltzen da, ez sortzeko.
- IKTak gero eta presenteago daude gizartean, haien erabilera etikoari eta zentzudunari buruzko benetako hausnarketa egin gabe.
- Gaur egungo irakasleen belaunaldiak ez du sare edo lantaldeetan parte hartzeko ohiturarik.
- IKTek ikaslea distraitzen lagun dezakete.
- Zaila da ikaslegoarengan sormena sustatzea.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

- Taldean lan egiteko teknologia erabiltzen da.
- Aparatu batzuk erabilgarri daude ikasleentzat eta irakasleentzat. (1a1)
- Baliabideak online daude eta edukia sortzen dute.
- Komunikazio ona hezkuntza-komunitatean.
- Inklusio-plan ona eta talde-lana.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

- Ikasleak gazteak direnez, ICTetarako prestatuta etortzen dira.
- Langileen % 50a berritzen da: ICTak ezagutzen dituzten langileak sartzeko aukera.
- Ikastetxeari teknologia eman zaio.
- Administrazioak irakasleei zuzendutako prestakuntzak.
- ICTren erabilera etikoa eta zentzudunarekin arduratsuak diren ikasleen belaualdi bat sortzea.
- Langileak gero eta gehiago saiatzen dira beren lanpostuetan garatzen.
- ICTen bidez bildutako datuek nabarmen hobetzen dute prestakuntzaren ebaluazioa.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

- ICTetan segurtasuna eta horien erabilera egokia sustatzea, guztiek aparatua eskuragarri dutela kontuan hartuta.
- Hezkuntzan ICTak erabiltzeko esperientziei buruzko lankidetzaren sustatzea mintegietan.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

- Eskura dauden online baliabideak erabiltzea, irakaskuntzaren garapen profesionala errazteko.
- Ikasgelan ICTen bidez edukiak sortzea sustatuko duten dinamikak edo proiektuak sortzea.
- ICTei buruzko irakasleen arteko topaketak sustatzea, ICTei buruzko sareak.
- ICTak erabiltzeko araudia argi uztea.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

- Gizarteratzeko eta talde-lanerako plana erabiltzea, urtero irakasle berriei laguntzeko.
- IKTen erabilerari buruzko eztabaida-zirkuluak sustatzea.
- Proiektu bat ezartzen da, eta proiektu horretan gailu jakin bat eta metodologia bera aukeratzen dira guztientzat.
- IKTekin lankidetzan aritzeko protokolo bat ezartzea ikasleen artean, eta autoebaluazioa.
- Gailua hezkuntzarako eta ez entretenimendurako erabiltzen delako ideia irakasteak distrakzioa saihestu dezake.
- Irakasleen sormena sustatu dezaketen jardueretarako aplikazioak bilatzea.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

- Irakasleek IKTak ondo ezagutzen dituztela ziurtatzea.
- Irakasleei irakastea IKTak ez direla soilik entretenimendurako.
- Irakasleek IKTen arlo batzuetan duten ezjakintasuna aztertzea.
- Irakasleen eta ikasleen arteko belaunaldi-arrakala murriztea.
- IKTen bidez sormena sustatzea.

3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua Ikastetxean IKTak erabiltzeko araudia

Deskriptorea	Epea
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	24-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-taldeak eta eskola-kontseiluak onartutako estrategia digitalaren ildo nagusiak	Bai/Ez	Bai
LG 1.3 A2 Ikastetxearen Curriculum-Proiektuak ikasleen gaitasun digitalaren garapena zehazten du	Bai/Ez	Bai
LG 1.3 A3 Ikastetxeak batzorde bat eta koordinatzaile bat ditu estrategia digitala garatzeko, eta haren funtzioak edo/eta zereginak AJAn eta lan-planean jasoko ditu ikastetxearen urteko planean.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Plan digital estrategikoa sortzea	Ikastetxeko azpiegitura	Digitalizazio batzordea eta zuzendaritza taldea	24-06-20	Detektatua (%0)

Helburua
Plan digitala abian jartzeko plangintza sortzea.

Deskriptorea	Epea
LG 2.1 Planifikazioa erraztaileetan oinarritzen da, eta, aldi berean oztopoei heltzen zaie	25-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 2.1 A1 Programazioek ikasleen gaitasun digitalaren garapena jasotzen dute, eremuan, arloan edo ikasgaiari, bai eta kompetentzia ebaluatzeko irizpideak ere.	Ehunekotan	%50
LG 2.1 A2 Irakasle-taldeak prestatutako unitate didaktikoek gaitasun digitalaren garapenarekin lotutako jarduerak edo lan-proposamenak biltzen dituzte.	Ehunekotan	%50

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Adibidezko programazioak diseinatzea.	Ikasleen irteerako profila	Digitalizazio batzordearen arduraduna	24-02-28	Detektatua
Adibidezko unitate didaktikoak diseinatzea.	Ikasleen irteera profila, INTEF eta sarean dauden materialak	Digitalizazio batzordearen arduraduna	24-02-28	Detektatua

Helburua
Plan digitala ezartzeko prozesua ebaluatzea.

Deskriptorea	Epea
LG 3.7 Agerikoa da politika eta norabidea gainbegiratzen direla	24-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.7 A1 Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP) sartzen ditu irakasle-taldeak eta eskola-kontseiluak onartutako estrategia digitalaren ildo nagusiak.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ezarpen-plana aldizka gainbegiratzea.	Diseinatutako digitalizazio plana eta kurtso hasierako ebazpena	Digitalizazio batzordearen arduraduna	24-06-20	Detektatua (%0)

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Langileen eta ikasleen gaitasun digitala hobetzea.

Deskriptorea	Epea
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	25-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A1 Egutegi bat finkatu da lan saioak ezarriz, IIBen (EVA) erabilera landu eta irakasleen artean jardunbide egokiak trukatzeko.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IIB (EVA) bat hautatu eta inplementatu.	IIB-ak eta azpiegitura	Digitalizazio batzordearen arduraduna	24-04-01	Hasita (%1-19)
Prestakuntza-egutegia ezarri.	Barneko edo kanpoko prestakuntza	Zuzendaritza taldea	24-04-01	Detektatua

Helburua**Sormena sustatzea irakasleentzat eta ikasleentzat ICTak erabiltzean.**

Deskriptorea	Epea
II 2.6 Sormena sustatzen da	25-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.6 A1 Pentsamendu konputazionala txertatu da unitate didaktiko eta programazioetan.	Ehunekotan	%20
II 2.6 A3 3D diseinurako jarduerak txertatu dira.	Ehunekotan	%20

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
ICTen erabileran erronkak planteatzea.	Ikasleen irteera profil, ikas egoerak	Digitalizazio batzordearen arduraduna eta informatika eta teknologia irakasleak	25-06-20	Detektatua
Aplikazio sortzaileen erabilerari buruzko prestakuntza.	Barne/kanpo ko prestakuntza	Digitalizazio batzordearen arduraduna eta zuzendaritza taldea	24-06-20	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua

Ikastetxearen errealitatera egokitutako etengabeko garapen profesionala sustatzea.

Deskriptorea	Epea
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin	24-04-01

Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A3 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakaskuntza-prozesuan integratzeko, irakasle-taldeak antzemandako premien arabera.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen etengabeko garapen profesionalerako prestakuntza-plana antolatzea.	Irakasleen arteko galdetegiak, iradokizunak	Digitalizazio batzordea eta zuzendaritza taldea	24-04-01	Detektatua
EGParen prestakuntza-plana abian jartzea	EGParen prestakuntza-plana	Digitalizazio batzordea	24-04-01	Detaktatua
Prestakuntza-egutegia ezarri IIB (EVA) inguruan.	Barneko edo kanpoko prestakuntza	Zuzendaritza taldea	24-04-01	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Ebaluazio formatiboa abian jartzea ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan.

Deskriptorea	Epea
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	25-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1 A1 Ikasgaien % ... tan errubrikak erabiltzen dira irakasteko eta ikasteko prozesuetan, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuari buruzko autoerreflexioa egin dezaten.	Ehunekotan	%50

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Errubrikak sortzeari buruzko prestakuntza.	INTEF eta sarean dauden beste eredu batzuk	Digitalizazio batzordearen arduraduna	24-01-15	Detektatua
Ebaluazio formatiborako errubrikak sortzea.	Ereduak eta formakuntza	Mintegi buruak	25-06-20	Detektatua

Helburua**Autoebaluazio eta koebaluazio prozesuak ezartzea ebaluazio formatiboaren barruan**

Deskriptorea	Epea
EJ 1.3 Autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatzen da.	24-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.3 A1 Ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuak garatzeko erabiliko diren teknologia digitalak ezarri ditu.	Bai/Ez	Bai
EJ 1.3 A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren teknologia digitalak agertzen dira.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Baliabide digitalen biltegia sortzea	CoRubrics, GoogleForm, Excel	Digitalizazio batzordearen arduraduna eta mintegi buruak	24-06-20	Detektatua

Helburua
Ebaluazio-prozesua etengabe aztertzea.

Deskriptorea	Epea
EJ 3.3 Ikaskuntzari ikaskuntzaren analisiarekin laguntzen zaio	24-05-31

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 3.3 A1 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren teknologia digitalak agertzen dira.	Ehunekota n	%50
EJ 3.3 A2 Ikasleek, berehalako atzera elikadura informazioa jasotzen dute, baliabide teknologiko baten bitartez.	Ehunekota n	%50

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleak ebaluazio-prozesuen analisisian prestatzea	Barne/kanpoko prestakuntza	Digitalizazio batzordearen arduraduna eta zuzendaritza taldea	24-03-30	Detektatua

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua Irakasleentzat zein ikasleentzat edukia sortzen laguntzea.

Deskriptorea	Epea
EC 1.1 Irakasleek eta ikasleek sortzen dute edukia	25-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.1 A1 Curriculum-arloen/ikasgaien % ... ean, gutxienez, ikasleek eduki eta baliabide digitalak sortzen dituzte hezkuntza-maila guztietan, eta ikastetxeko biltegi komunean gordetzen dira.	Ehunekotan	%20

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Edukiak sortzeko inguruneak eta aplikazioak izatea.	Interneteko online baliabideak (Kahoot, google slides, canva, vocaroo, ahotts, genially...)	Digitalizazio batzordearen arduraduna, webguneko arduraduna	24-06-20	Detektatua
Irakasleak edukiak sortzeko inguruneetan prestatzea.	Barne/kanpoko prestakuntza	Digitalizazio batzordearen arduraduna eta zuzendaritza taldea	24-06-20	Detektatua

Helburua
Ikaskuntza sustatzea, benetako testuinguruetatik abiatuta

Deskriptorea	Epea
EC 2.4 Ikaskuntza egiazko testuinguruetan sustatzen da	24-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.4 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenaren ibilbidea eta hezkuntza-maila bakoitzerako gaitasun digitala ebaluatzen irizpideak jasotzen ditu.	Bai/ez	Bai
EC 2.4 A2 Ikastetxearen curriculum-proiektuan, arlo edo ikasgai desberdinak garatzean, gaitasun digitalaren garapenarekin zerikusia duten alderdiak jasotzen dira.	Bai/ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleen irteera-profil digitala definitzea etapa/maila bakoitzeko.	Programazioak, IUP, ikasleen interesen galdetegia	Digitalizazio batzordearen arduraduna, zuzendaritza taldea eta irakaslegoa	24-06-20	Detektatua
Ikaskuntzako testuinguru errealak definitzea irakasgaiaren arabera	Aurrezagutzak eta ikasleen interesen	Mintegi buruak eta orientatzaile	24-01-15	Detektatua
Ikaskuntzako testuinguru errealakerabiltzen dituen ikas egoera baten eredu sortzea.	Aurrezagutzak eta ikaskuntzako testuinguru errealak.	Mintegi buruak eta orientatzaile taldea.	24-01-15	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua Ezagutzaren trukea sustatzea
--

Deskriptorea	Epea
EN 1.4 Ezagutza trukatzeko jarduera eta ekitaldietan parte hartzea sustatzen da	25-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.4 A1 Ikastetxeak eremu digitalean esperientziak trukatzeko jardunaldi batzuk planifikatu ditu, inguruko beste ikastetxe batzuk parte hartzera gonbidatuz.	Bai/ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ezagutzaren trukea ahalbidetzeko estrategia bat definitzea	Institutuko webgunea eta intraneta, drive, bideotutorialak, jardunaldi bat	Digitalizazio batzordearen arduraduna, zuzendaritza taldea eta webguneko arduraduna	24-06-20	Detektatua

Helburua**Barneko zein kanpoko komunikazio-politika eraginkorra ezartzea****Deskriptorea****Epea**

EN 2.1 Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita

25-06-20

Adierazlea**Mota****Helmuga**

EN 2.1 A1 Ikastetxeak ikastetxeko komunikazio-plan bat garatu du, informazio- eta komunikazio-prozesuak garatzeko, zentroaren webgunean eta sare sozialetan.

Bai/ez

Bai

Ekintzak**Baliabideak****Arduradunak****Epea****Egoera**

Barneko eta kanpoko komunikazio-plan bat sortzea.

Institutuko webgunea, intraneta, drive, eta sare sozialak

Digitalizazio batzordearen arduraduna, zuzendaritza taldea eta webguneko arduraduna

25-06-20

Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua Azpiegitura teknologikoak eguneratuta mantentzea

Deskriptorea	Epea
AZ 1.2 Ikaskuntza-ingurune birtualak optimizatzen dira.	25-06-20

Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.2 A2 Zentroak jarduera-protokolo bat du, eta, bertan, lineako ikaskuntza-ingurunea eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eta horiek mantentzeko/eguneratzeko eragiketak zehazten dira, operatibo egon daitezen.	Bai/ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Zentroak jarduera-protokolo bat definitu lineako ikaskuntza-ingurunea eskaintzeko baliabide teknologikoen bidez.	Classroom, intranet	Digitalizazio batzordearen arduraduna, webgune arduraduna eta zuzendaritza taldea	25-06-20	Detektatua

4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikastetxean IKTak erabiltzeko araudia	24-06-20	Dokumentu erregistroa	Digitalizazio batzordearen arduraduna		
LG	Plan digitala abian jartzeko plangintza sortzea.	25-06-20	Dokumentu erregistroa	Digitalizazio batzordearen arduraduna		
LG	Plan digitala ezartzeko prozesua ebaluatzea.	25-06-20	Galdetegia	Digitalizazio batzordearen arduraduna		
II	Langileen eta ikasleen gaitasun digitala hobetzea.	25-06-20	Galdetegia	Digitalizazio batzordearen arduraduna		
II	Sormena sustatzea irakasleentzat eta ikasleentzat IKTak erabiltzean.	25-06-20	Kontrol orria	Mintegi buruak eta digitalizazio batzordearen arduraduna		
GP	Ikastetxearen errealitatera egokitutako etengabeko garapen profesionala sustatzea.	24-04-01	Galdetegia	Digitalizazio batzordearen arduraduna		
EJ	Ebaluazio formatiboa abian jartzea ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan.	25-06-20	Kontrol orria	Digitalizazio batzordearen arduraduna		

EJ	Autoebaluazio eta koebaluazio prozesuak ezartzea ebaluazio formatiboaren barruan	24-06-20	Kontrol orria	Digitalizazio batzordearen arduraduna eta mintegi buruak		
EJ	Ebaluazio-prozesua etengabe aztertzea.	24-05-31	Galdetegia	Digitalizazio batzordearen arduraduna eta mintegi buruak		
EC	Irakasleentzat zein ikasleentzat edukia sortzen laguntzea.	25-06-20	Galdetegia	Digitalizazio batzordearen arduraduna eta mintegi buruak		
EC	Ikaskuntza sustatzea, benetako testuinguruetatik abiatuta	24-06-20	Kontrol orria	Zuzendaritza taldea		
EN	Ezagutzaren trukea sustatzea	25-06-20	Galdetegia	Digitalizazio batzordea		
EN	Barneko zein kanpoko komunikazio-politika eraginkorra ezartzea	25-06-20	Dokumentu erregistroa eta kontrol orria	Zuzendaritza taldea		
AZ	Azpiegitura teknologikoak eguneratuta mantentzea	25-06-20	Galdetegia kurtso hasierako eta amaierako egoera alderatzeko.	Digitalizazio batzordea		